

**IKASGAIAREN IZENA: AHOZKOTASUNA. EUSKARA**

<b>DEPARTAMENTUA</b>	<b>MINTEGIA: EUSKARA ETA LITERATURA</b>
<b>ZERTARAKO</b>	Ahozkotasuna lantzeko helburuarekin. Ikasleek euskaraz hitz egiteko tarte bat izatea da helburu nagusia. Horretarako, ahozko jarduna egoki ekoizteko baliabideak eskainiko zaizkie.
<b>ZER IKASIKO DUZU</b>	Euskarazko ahozko jarduna ongi egituratzen ikasiko dugu. Ahozko komunikazioaren ezaugarriak ikasiko ditugu eta hortik abiatuta, euskaraz ongi hitz egiteko tresnak garatu.
<b>METODOLOGIA</b>	Klaseak parte hartzaileak izango dira. Gelan egindako lanetan oinarrituta, ahozko ekoizpenei emanen zaie garrantzia batez ere. Honetaz gain, debateak, eztabaidak, aurkezpenak, pelikulak ikusi, etab. egingen dira. Ikasleek hizkuntza erabiliz ikastea da helburua.
<b>EBALUAZIOA</b>	Eguneroko lanak, jarrera, ahozko aurkezpenak eta parte hartzea baloratuko dira.
<b>OHARRAK</b>	Euskara eta literaturako klase arruntetan, ahozkotasuna lantzeko guk nahi baino denbora gutxiago izaten dugu. Ikasleek ahozkotasunean hutsune bat dutela nabaritzen dugu; ez dute ahozko jarduna ongi egituratzen eta euskaraz hitz egitea ere asko kostatzen zaie. Hau indartu nahi dugu. 1.mailarako proposatzen dugu.